

# Nola ikusten dute euskararen biziberritzea atzerrian? Hizkuntza gutxituekin diharduen unibertsitate baten kasua: SOAS unibertsitateko HRELP egitasmoa

**Beñat Garaio**

*Hizkuntzen Sostengua eta Biziberritzea masterreko ikaslea (SOAS, Londres)*

benyat@garaio.eus

Sarrera-data:2015-03-30 | Onartze-data:2015-06-25

**Laburpena.** Euskararen biziberritze prozesua, beste hizkuntza askoren kasuan bezalatsu, luzea eta gora-behera handikoa izan eta izango da. Hamaika egitasmo eta beste horrenbeste eragile dabilta buru-belarri geure hizkuntzak indartsu aurrera jarrai dezan. Jakina, ez gara bakarrak kinka honetan gaudenak eta mundu zabalean milaka pertsona daude haien edo beste batzuen hizkuntza gutxituen alde. Edonola ere, egoera berean daudenen elkarlana bereziki garrantzitsua da hizkuntzak biziberritu nahi badira, eta komenigarria da norberak egiten duena kanpoko norbaitek ebaluatzea. Kanpokoek gutaz esaten eta pentsatzen dutena, halaber, interesgarria da beste arrazoi batzuentatik, adibidez, atzerrian proiektatzen dugun irudia zein den jakiteko. Bada, Londreseko SOAS unibertsitatean, hizkuntza gutxituekin lanean dabilen HRELP izeneko egitasmo indartsua dago, eta hango partaideei euskararen eta haren biziberritze prozesuaren inguruan egindako galderekin osatu da artikulu hau. • **Hitz gakoak:** *euskara, SOAS, HRELP, jarrerak, hizkuntza gutxituak, eredu.*

**Abstract.** The process to revitalise Basque, just as in the case of many other languages, has been and will continue to be long and full of ups and downs. Many projects and as many players are busily involved so that our language can progress from strength to strength. Naturally, we are not the only ones in this predicament and there are thousands of people across the world working in support of their own or other minority languages. In any case, the cooperation of those who are in the same situation is tremendously important if one wants to revitalise languages, and it is advisable to have what one is doing externally evaluated. What people outside say and think about us is interesting for other reasons, for example, to find out what image we are projecting abroad. So there is a powerful project by the name of HRELP working with minority languages at SOAS, University of London, and this article covers the questions presented to its members about Basque and its revitalisation process. • **Key words:** *Basque, SOAS, HRELP, attitudes, minority languages, model.*

## 1. SARRERA

I  
Euskararen normalizaziorako eman diren pausuak erreferentzia dira gure egoera bertuan edo okerragoan dauden hizkuntza askorentzat, eta Tribuaren Berbak-en “Eredu ere bagarelako” (2015) atalean hori ikusi ahal izan genuen.

Inork euskararen alde lan egin nahiko balu, Euskal Herrian bertan horretarako baliabide, aukera eta aitzakia nahiko ditu. Beste hizkuntz komunitateetan, ordea, eta hainbat arrazoi direla medio, ez dute gure baliabide eta aukerarik, eta beraien hizkuntzen alde egiteko moduak ‘intuitiboak’ izan daitezke, ez badira behintzat atzerrira ikastera joaten. Izan ere, Nancy Dorian-en ‘alerta deiadarra’ (1981) delakoaren ondoren, geroz eta jende gehiagok du interesa hizkuntza gutxituetan, baita hizkuntza ‘indartsuetako’ hiztunek ere. Azken hauen eta ikasteko aukerarik ez duten horientzako, bi programa indartsu sortu dira mundu zabalean, bata Hawaiiko Unibertsitateak (s.d.) martxan jarri duen *Language Documentation and Conservation* egitasmoa, gehienbat hizkuntzen dokumentazioan oinarritzen dena, eta bestalde, Londreseko *School of Oriental and African Studies* unibertsitateak (hemendik aurrera SOAS) bere baitan duen HRELP, edo *Hans Rausing Endangered Language Project*, delakoa (2015). Zein izango da urrun ditugun bi mundu horietan euskararen biziberritzearekiko duten iritzia? Ezagutuko al gaituzte han ere?

‘Ur handitan’ telebista saioak ‘Nola ikusten gaituzte espainiarrek?’ saioa emititu zuen 2015ean, bada ideia horri jarraituz sortu da artikulu hau.

Hain zuzen ere, lan honetarako HRELP-eko zenbait arduradun, irakasle eta ikasle izan dira elkarrizketatuak, beste hizkuntza gutxituen alde ari diren horiek nola ikusten gaituzten jakiteko.

## 2. SOAS ETA HRELP<sup>2</sup>

I  
SOAS-eko Hizkuntzalaritza departamendua 1932an sortu zen, beraz, Erresuma Batuan lehenengoa. Gaur egun, hizkuntza zerrenda luze bat ikasi eta aztertzekeo parada ematen du, horietatik asko lehen aldiz ikertuak izaten ari direnak. Hizkuntza horiek, batik bat, Afrika, Asia, Australia, Erdi Ekialdea, Ozeano Barea eta Siberiakoak dira eta esparru askotatik aztertuak dira, hala nola, sintaxia, fonologia, hizkuntzen tipologia, itzulpengintza, hizkuntzen irakaskuntza, hizkuntzalaritza historikoa, soziolinguistika, etab. Departamentuak oraintxe bertan 17

---

**Lan honetarako HRELP-eko zenbait arduradun, irakasle eta ikasle izan dira elkarrizketatuak, beste hizkuntza gutxituen alde ari diren horiek nola ikusten gaituzten jakiteko.**

langile eta 48 ikerlari ditu, doktoregaiak kontutan hartuz gero. Gainera, sarri joaten dira irakasle bisitariak, bereziki Afrika eta Asiatik. Azken hauen ekarpenek, SOAS unibertsitateko berezko aniztasunak eta urtean zehar antolatzen diren ekintzek, izaera berezia ematen diote bai unibertsitateari eta baita hizkuntzalaritza departamentuari ere.

Baina zerbait nabarmentzekotan, hori HRELP da, donazio pribatu batek ahalbidetzen duen programa indartsua. Izan ere, alor honetan mundu mailan liderra den ikerketa argitaratzen du eta bere misioetako bat 'language endangerment' delakoa unibertsitateetako paretetatik atera eta kalera ateratzea da. Lehenengo urteetako plangintza eta analisisien ostean, Endangered Languages Archive (ELAR) delakoa sortu zuten eta orain hasi da material baliagarri asko artxibatu eta mundu osorako partekatzen, izan testuak, izan bideoak, izan audioak, izan metadata... Beraz, gaur egun, departamentuak hiru adar ditu, ELAR, ELDP (hizkuntzak dokumentatzeko) eta ELAP (alor akademikoa, masterrak eta ikastaroak antolatzen dituena).

Azken honen kasuan, egitasmoak bi ardatz ditu: hizkuntzen deskribapena eta dokumentazioa, alde batetik; eta hizkuntzen biziberritzea eta normalizazioa, bestetik. Hasieran lehenengoak garrantzia askoz gehiago bazuen ere, gaur egun biziberritzeak geroz eta toki gehiago du departamentuan.

Bukatzeko, eta nahiz eta HRELP delakoa diru-laguntza pribatuen menpean dagoen, 2015eko udaberrian bertan hitzarmena luzatu eta beste 11 M libera jaso ditu programak, bere ekintzekin aurrera jarraitu dezan (SOAS, 2015).

### **3. METODOLOGIA**

Lagin txikia izango zela aurreikusi zenez eta ahalik eta informazio gehien jaso nahi zenez, e-mail bidez bidalitako galdetegi ireki bat pasatu zitzaien elkarrizketatuei, Godoyk (2009) eta Quecedo eta Castañok (2002) metodologia kualitatibo eta deskribatzailea esango luketena.

#### **3.1 Galderak**

Horrelako kasuetan, ez da lan xamurra izaten galdera egokiak aukeratzea, baina honako hauek dira HRELP-eko langile eta ikasleei egin zitzaizkien galderak:

**Galdera pertsonalak (“Lagina” atala osatzeko):**

- Esagazu zerbait zure nondik norakoen (“background”) inguruan
- Nondik sortu zitzaizun hizkuntza gutxituekiko edo hizkuntzalaritzarako duzun interesa?
- Zeintzuk dira zure interes gune nagusiak hizkuntza gutxituen arloan edo hizkuntzalaritzan?
- Nolako ekarpenak egiten dizkiezu hizkuntza gutxituei edo zuk hautatutako hizkuntzei?

**Euskarari buruzko galderak:**

- Zer dakizu euskarari buruz?
- Zergatik da garrantzitsua euskara bezalako hizkuntza bat biziberritzea?
- Zer ari dira egiten Euskal Herrian euskara normalizatzeko?
- Zeintzuk dira ezagutzen dituzun euskal ikerlari, aditu edo ekintzaileak? Inor ezagutzen baduzu, nola ezagutu zenuen?
- Zer eskaini dio euskararen biziberritze prozesuak zure arloari?
- Zer da prozesu honetan gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?
- Zer da zuk, ikerlari edota aditu bezala, euskararentzako gomendatuko zenukeena?

### 3.2 Lagina

Departamentu txikia izanik, departamentuko irakasle, langile eta ikasle guztiekin jarri zen harremanetan eta bakoitzari argibide berdinak eman zitzaizkien. Apirila garai txarra izaten denez Ingalaterrako unibertsitateetan, departamenduko langileen erdien erantzunak (zortzi) eta lau ikaslek erantzun zuten. Bukatzeko, hizkuntza gutxituekin loturarik ez zuten hainbati galdetu zitzairen. Orotara, hamalau erantzun jaso ziren eta hamahiru erabili dira lan honetarako.

Hauk dira ondorengo ataletan elkarrizketatuak identifikatu ahal izateko erabiliko diren kodeak, irakurketa errazte aldera<sup>2</sup>.

Ardura		Departamentua		Informazio osagarria	
Z	Zuzendaria	H	Hizkuntzalaritza	E	Euskal Herrian egona
Ir	Irakaslea	HG	Hizkuntza Gutxituak	Ñ	Espainian bizi/ikasitakoa
Ik	Ikerlaria	Ar	ELAR: Hizkuntza Gutxituen Artxiboa		
D	Doktoregaia	P	ELDP: Hizkuntza gutxituen dokumentazio egitasmoa		
I	Ikaslea	X	Hizkuntzekin zerikusirik ez		

- Irina Nikolaeva ZH

Hungariera ikasi zuen graduan eta hortik, harekin lotura duten hizkuntza uraliko txikiak ikasten eta “esploratzen” hasi zen, batik bat Siberiakoak. Ondoren, desagertzeaz zeuden beste hizkuntza batzuetara pasatu zen,

batik bat giza garunak hizkuntza produzitzerako orduan nola lan egiten duen aztertzeke.

Ez dauka hizkuntzen biziberritzean aparteko federik, baina hizkuntza siberiar askorentzako materialak sortu ditu eta sarean daude eskuragarri<sup>3</sup>.

- Mandana Seyfiddinipur ZHGArP

HRELP-en hiru adarretako bi diren ELDP eta ELAR (ikus gorago) zuzentzen ditu. Persieraren eta azerbaijaneraren diskurtsoa eta eskuen erabilera eguneroko elkarrizketetan aztertu izan ditu, bereziki. Horretaz gain, *Max Planck*-en egin zuen doktoretza tesia psikolinguistikan, EB-ko *Marie Curie* beka lortu zuen eta *Stanford*-en ikertzen aritu zen.

- Julia Sallabank IrHGE

Bere amak arrisku bizian dagoen hizkuntza bat (*Guernesiais*) hitz egiten zuen, baina ez zion irakatsi. Berak bere kabuz ikasi zuen eta egun, 60 urtetik behera dituztenen artean hizkuntza menperatzen duten 6 lagunetako bat da.

SOASen berak ematen ditu hizkuntza biziberritzearekin lotutako eskolak eta ikerketa arloan, hizkuntza jarrerak, ideologiak eta motibazioak ditu aztergai bereziki. Munduan zehar hainbat ikerketa egin ditu eta azkenaldian Kaledonia Berrian aritu da hango hiztun komunitateekin lanean.

Euskal Herrian egon zen duela hamabost urte, ikastolak bertatik bertara ikusten.

- Candide Simard IrHG1

Quebecokoa da eta hango “nazionalismo indartsuari esker”, gaztetan konturatu zen hizkuntzak norbere identitatearentzako duen garrantziaz. Oso hizkuntza gutxituekin lan egiten du Australiako *Northern Territory* delakoan, batik bat prosodia aztertuz.

Batik bat hizkuntzen dokumentazioan lan egiten du, baina bere esanetan, dokumentazioaren eta biziberritzearen arteko aldea oso estua da. Honetaz gain, PAW (*Plants, Animals and Words*) egitasmoko eta Sylheti hizkuntza Londreseko diasporan dokumentatzen arduradunetako bat da.

- Charles Chang IrHG2

*Harvard, Berkeley, Cambridge* eta *Maryland* unibertsitateetan ikasitakoa, Leanne Hintonen gidaritzapean *Southeastern Pomo* hizkuntzaren lehen hiztegia argitaratu zuen, beste kide batzuekin batera. Horretaz gain, elebitasuna eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntza eta fonetika ere aztertzen ditu.

- Lutz Marten IrH

Ez du hizkuntza gutxituekin lan egiten, baina bere interesguneak Afrikako hizkuntzen aldaketa, hizkuntza egituraren eta erabileraren arteko elkarrekintza, Afrikako aniztasun ekologikoa eta hango hizkuntzen irakaskuntza dira. Horretaz gain, hango ikerlari gazteen sarea antolatzen dihardu, baita ikerketak sustatzeko azpiegitura akademikoa ere.

- Nathan Hill IrH2

Oregoneko estatubatuarra, *Harvard* unibertsitatean Budologia ikasi zuen. Orduan konturatu zen Tibeteko hizkuntza asko ez daudela batere dokumentatuak, eta hegemonia inperialista horri aurre egiteko hango Sino-Tibetar hizkuntzak ikertzen hasi zen.

- Hannah Gibson IkHG

Swahilia ikasi zuen graduan eta hor hasi zen Afrikako hizkuntza gutxituak ikasten, bereziki Afrika Ekialdeko Bantu hizkuntzen sintaxia, morfosintaxia, hizkuntzen arteko ukipena eta hizkuntza aldaketa.

- Birgül Yılmaz DHG

Ipar Kurdistanekoa da, baina Britainia Handian 15 urte pasatxo daramatza. Hizkuntzalaritzaren inguruko hainbat ikasketa egin ostean, Londreseko diaspora kurdua aztertzen ari da bere doktoretza tesirako, gaztetxoek hizkuntza jarrerak kurduerarekiko, hain zuzen ere.

- Paul Sutherland IHG

Bereziki, hizkuntza aktibisten bizipenean, soziolinguistikan (hizkuntza paisaia) eta bizimodu tradizional, moderno eta hizkuntzaren arteko harremanean du interesa.

SOASeko artxiboan lan egiten du eta UNESCOn praktikaldi bat egingo du 2015eko udaran hizkuntza gutxituen mapa osatzen laguntzeko.

---

***Ikarrizketatu  
gehienek  
erantzunak  
galdera  
gehienetan "ez  
dakit", "gehiago  
irakurri beharko  
nuke honen  
inguruan", "ez  
dut honi buruz  
inoiz pentsatu",  
"ez dakit zer  
esan", izan  
direla, beraz,  
hori litzateke  
lehenengo  
emaitza:  
euskarari  
buruzko ezagutza  
eskasa.***

---

**Denek jakin zuten esaten Euskal Herrian hitz egiten dela, nahiz eta Euskal Herria zer den guztiz ziur egon ez. Horretaz gain, ez dago argi ofizialtasunik duen ala ez.**

- Byungwan Bae IHGÑE

Madrileko Complutensean Filologia Espainiarra ikasitako korearra, Er-tamerikako hizkuntza gutxituetan eta Koreako *Jeju* hizkuntzan du bereziki interesa, batik bat, fonetika, fonologia eta hizkuntzen akustika.

- Ilaria Compagnoni IHÑ

Hizkuntzen irakaskuntza du interes-gune nagusia italiar honek, bereziki italiara ikasten duten japoniarren zailtasunak, eta alderantziz. Calahorran lan egin eta ikasi zuen 6 hilabetez.

Horretaz gain, hizkuntzalaritzarekin harremanik ez duten biren erantzunak jaso ziren, eta lanean zehar IX greziar-britainiarra eta IX2 italiar-somaliarra izango dira.

#### 4.ERANTZUNAK

Hurrengo orrialdeetan, elkarrizketatuen erantzunak jasoko dira, galderaka antolatuta. Aipuak edo pasarte interesgarriak nabarmentzerakoan, elkarrizketatuen kodea jarriko da, irakurketa errazte aldera.

Aldez aurretik, esan behar da elkarrizketatu gehienek erantzunak galdera gehienetan “ez dakit”, “gehiago irakurri beharko nuke honen inguruan”, “ez dut honi buruz inoiz pentsatu”, “ez dakit zer esan”, izan direla, beraz, hori litzateke lehenengo emaitza: euskarari buruzko ezagutza eskasa. Gainera, balizko elkarrizketatuaren ezagutza falta izan da galdetegia ez betetzeko arrazoietakoa bat.

Dena den, elkarrizketatuek ahal zuten heinean erantzun zuten eta horietatik azalduko dira ondoren.

#### Zer dakizu euskarari buruz?

Erantzun ohikoena kasu honetan hau izan da: hizkuntza isolatu bat, ziuurren indo-europearrak baino lehenagokoa da eta ezaugarri linguistiko (kasua, “biactantial agreement”, ergatiboa du...) berezi eta interesgarriak ditu. Denek jakin zuten esaten Euskal Herrian hitz egiten dela, nahiz eta Euskal Herria zer den guztiz ziur egon ez. Horretaz gain, ez dago argi ofizialtasunik duen ala ez, eta horrela izatekotan, zer puntutaraino.

Hizkuntzaren inguruko beste hausnarketa batzuk ere interesgarriak dira:

“Dialekto asko daudela dakit, baina ez dakizkit haien izen edo eskualdeak. Interesgarria da jakitea islandiera-euskara pidgina dagoela. Hizkuntza gutxitu bat izateko hitzun asko ditu, baina gehiengo handi batek, gazteek barne, ez dute hitz egiten. Horretaz gain, hizkuntza paisaia oso aurreratuak daude eta uste dut hori oso garrantzitsua dela.” IHG

“Euskarak oso hizkuntza zaila izan behar du ikasteko eta bere idazteko erak oso zaila dirudi. Nire lagun euskaldunek esana da jende askok ez duela hitz egiten eta dakitenek, hitz egiteko zailtasunak dituztela. Horretaz gain, kaleetan errotulazioa bi hizkuntzatan dago egina eta erdal hitzunek tokien euskal formak nahiago dituzte”. IHGÑE

Kinka berean dauden elkarrizketatuek informazio gehiago eskaini ahal izan zuten, hala, Quebecoko irakasleak esan zuen han askotan aipatzen dela euskararen kasua, bi komunitateek baitute hizkuntza mantentzeko determinazioa. Doktoregai kurduak, berriz, dio euskara terrorismoarekin lotutako hizkuntza izan dela, kurduera bezalatsu.

Terrorismoa eta politizazioa izan zen, hain zuzen, askotan aipatu zen gai bat. Honako aipu hauek ere erakusteko modukoak dira:

“Abertzaletasun mugimendu indartsua dago, eta zoritxarrez, eskuindar nazionalistek hizkuntza mugimenduari bat egiten dute”. IHG

“Francoren garaian hizkuntza debekatua izan zen eta bakarrik klase altuko jendeak hitz egin zezakeen askatasunez. Espainiako jende normalak euskara terrorismoarekin lotzen duen inpresioa izan nuen, beraz, euskara entzuten dudanean jende oso erradikal eta independentista etortzen zait burura”. IHGÑE

Baina horretaz gain, euskararen biziberritzeak izan duen arrakasta eta indarra ezaguna da, eta askok azpimarratu zituzten hizkuntzarekiko harrotasuna, egiten ari den lana eta antolatutako ekintzak.

Egindako lanaren inguruan, hau da irakasle batek esandakoa:

“SOASeko Hizkuntza Biziberritzea adarrean askotan aipatzen da<sup>4</sup> euskara eskoletan, hizkuntza plangintzaren ondorioz biziberritutako adibide egokia baita eta gure ikasturteko irakurgaien artean euskal egileen liburuak jarri ohi izan ditugu. Kasu interesgarria da [euskararena], Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren egitasmoak, gizarteak bultzatutako egitasmoekin batzen direlako.”IrHG1

**Quebecoko irakasleak esan zuen han askotan aipatzen dela euskararen kasua, bi komunitateek baitute hizkuntza mantentzeko determinazioa. Doktoregai kurduak, berriz, dio euskara terrorismoarekin lotutako hizkuntza izan dela, kurduera bezalatsu.**

**euskararen biziberritzeak izan duen arrakasta eta indarra ezaguna da, eta askok azpimarratu zituzten hizkuntzarekiko harrotasuna, egiten ari den lana eta antolatutako ekintzak.**



**Normalean, murgiltze eredia eta goi mailako heziketa euskaraz aipatu zuten, nahiz eta beste batek esan euskara ez dela toki guztietan irakasten eta ikasle guztiak ez dutela arrakasta berdinarekin ikasten. Honen errua bertako gobernuarena, erdaldunena eta espainiar gobernuarena omen da.**

## **Zergatik da garrantzitsua euskara bezalako hizkuntza bat biziberritzea?**

Askok galdera honi ezin izan zioten erantzun, ez baitzekiten zer esan edota euskaldunei egin beharreko galdera zelako, ez kanpokoei.

Baina jasotako erantzunak anitzak izan ziren, hiru taldeetan banatzeko modukoak.

Alde batetik, hizkuntzaren alde emozionala, historikoa, kulturala eta identitarioa aipatu zuten askok:

“I think revitalization efforts are important in general to maintain a central component of people’s cultural heritage.” IrHG2

Edo:

“Garrantzitsua da euskara normalizatzea euskaldun zaharrek independentzia politikoa eta kulturala lortu nahi baitute Espainiatik, ez baitira honen parte sentitzen ez kulturalki, historikoki, ez eta linguistikoki ere.” IHN

Beste batzuek, aldiz, hizkuntza aniztasuna aipatu zuten arrazoi nagusiztat:

“Munduan zehar bezala, hizkuntza ezagutza (“knowledge”) eta hizkuntza aniztasuna garrantzitsuak diren heinean da euskara garrantzitsua. Hizkuntzek izugarriko informazio gordailua dute eta behin balduta, ezin da berreskuratu”. IkHG

Bestalde, hizkuntzaren biziberritzeak alor soziolinguistikoa eta justizian kokatu zituzten beste batzuek:

“Galdera zaila da hau. Nire ustez, eguneroko bizitzan hizkuntza erabiltzea ofizial izatea baino garrantzitsuagoa da. Funtsezkoa da hizkuntza txikien errekonozimendua eta berau erabiltzeko eskubidea aldarrikatzea, [...] baina erakundeek hizkuntza plangintzaren ardura osoa hartzen badute, hiztunek sentitu dezaketen larritasuna neutralizatu dezake, ardura osoa erakundeei eman diezaiekitelako.” IrHGE

“Garrantzitsua da kontzientzia pizten duelako, eta zorte pixka batekin, normalizatzekeo egitasmoak diruz laguntzeko aukera. Hala ere, jendeak ez badu beheko erabilera eremurik erabiltzen, ez da hiztun osorik egongo.” IHG

Departamentuko ikasle korearrak eta antropologia ikasle greziarrak, halaber, hiru arrazoiak aipatu zituzten.

## **Zer ari dira egiten Euskal Herrian euskara normalizatzeko?**

“A lot, loads: research, schooling, immersion, publishing,...” ZHGArP

Argi dago elkarrizketatuek gure egitasmo askoren berri dutela, nahiz eta neurri desberdinetan izan.

Alde batetik, batuaren sorrera eta estandarra eskoletan erabiltzeko aukera aipatzen du Julia Sallabankek, nahiz eta batuak belaunaldi arteko transmisioa eten duela aipatzen duen, iloben eta aitona-amonon hizkuntza ez baita bera. Horretaz gain, futbol partiduak euskaraz botatzen direla gaineratu zuen, “jendea motibatuzeko modu aparta eta erraza (baina garestia)”.

Honako hau ere gaineratu zuen:

“Kaleko seinale asko ere euskaraz ikasi nituen, nahiz eta hau sinbolikoa den eta askotan akatsak zituzten. Kontzientzia pizteko balio dute, baina ez dira oso erabilgarriak. Eta erakundeen saiakereaz gain, jatetxe eta denda kartelak euskaraz ikusi nituen, graffitiak, etab. Eta jendea entzun nuen hitz egiten!” IrHGE

Beste batzuk, normalean, murgiltze eredua eta goi mailako heziketa euskaraz aipatu zuten, nahiz eta beste batek esan euskara ez dela toki guztietan irakasten eta ikasle guztiek ez dutela arrakasta berdinarekin ikasten. Honen errua bertako gobernuarena, erdaldunena eta espainiar gobernuarena zela ere gaineratu zen. Horretaz gain, epaitegietan eta erakundeen aurrean euskaraz hitz egin zitekeela gaineratu zuen beste irakasle batek, gaztelaniak dituen eskumen berak baititu.

Bestalde, hizkuntzen biziberritzean sakondu gabeko irakasle batek honakoa esan zuen:

“Ez nago ziur zer egiten ari diren, hizkuntzalaritza deskriptiboa eta hizkuntzalaritza aplikatua egiten ari diren ekimenak salbu.” IrH

Eta hau bere kide batek:

“My impression was that Basque was quite successful in comparison to other European minority languages (e.g. Sorbian). Federalism in Spain is certainly helpful.” IrH2

Quebectarraren erantzuna ere interesgarria da, antolatutako egitasmoek jarraipena dutela dio eta:

“Urte askotan zehar egindako ekintzez gain, oso interesgarria da ikustea han ekintzen emaitzak aztertu eta ebaluazio onak egiten direla, egitasmoak emaitzen arabera moldatuz eta hutsuneak sumatzerakoan ekintza berriak antolatuz.

Gainera, euskararen biziberritzean diharduten horien estrategiak negozioen kudeaketan erabiltzen diren estrategiekin alderatu dituztela ikustea erabilgarria da. Ez dakit honek hizkuntzaren esentzia komodifikatzen<sup>5</sup> duen edo ez, baina esan dezaket hizkuntza gutxituen inguruko diskurtsoa aldatu dela.” IrHG1

Egilearen klase-kide batek erantzundakoa ere kontutan hartzekoa da:

“Egia esateko, ez nago ziur. Beñat denbora luzez ezagutu dudan arren, bakarrik berak esandakoaren inguruan hitz egin dezaket. Adibide bat hizkuntza paisaiarena da, seguruenik euskaraz errotulatzea derrigortuta dagoelako. Euskal komunikabideen presentzia handiaz ere jakitun naiz, baita euskaldunen hizkuntza eskubideen eskakizunez ere, nahiz eta azken hauek gutxitan erabiltzen diren.” IHG

Bukatzeko, bi italiarrek esandakoak aipatuko da, geure hizkuntzaren alde munduan zehar antolatutako ekintzak egiten zirela esan baitzuten. Hain juxtu, hori esan zuen Arte ikasle italiarrak:

“Bizi izan naizen herrialde guztietan ikusi ditut hizkuntzaren alde antolatutako ekintzak. Ez dakit, ordea, euskal erakundeek bultzatutakoak ziren ala ez.” IX2

### **Zeintzuk dira ezagutzen dituzun euskal ikerlari, aditu edo ekintzaileak? Inor ezagutzen baduzu, nola ezagutu zenuen?**

Askorentzako artikulua egilea izan da ezagutu duten lehen euskalduna, eta gehienek esan dute beraren bidez izan dutela euskararen berri. Antropologia ikasleak dio geroztik hasi dela bere inguru hurbilean eta lan akademikoetan euskara aipatzen.

Bestalde, ikerlari eta irakasleei dagokienez, Durk Gorter, Jasone Cenoz eta Larry Trasken lanak aipatu zituzten bizpahiruk, baita Ricardo Etxepare ere.

Batik bat kongresuetan ezagutu izan dituzte pertsona hauek, eta honen harira, hauxe gaineratu zuen batek:

“Leipzig-era joan nintzen duela urte batzuk eta bi ikerlari gazte euskaldun ezagutu nituen, bata Frantziakoa eta bestea Espainiakoa. Nire kide faboritoak

ziren bi haiek. Euskal Herrian Chomskyar hizkuntzalaritza hedatua zegoela eta, pena hori azaldu zuten, eta nik ere uste dut pena dela. “ IrH2

Baina hizkuntzen biziberritzean murgildutako jendea ere ezagutzen zuten, hainbat elkarlanen ondorioz, ikastoletako jendea kasu.

Horretaz gain, SOAS unibertsitateak antolatutako ekintzetan ere euskaldunak ezagutzeko aukera egon ohi da, edo behintzat horrela esan zuen Candide Simard-ek. Hain zuzen ere, 2011ko *Endangered Language Week* delakoan, Joseba Iñaki Lopez de Luzuriagak hitzaldi bat eman zuen, Londreseko Euskal Elkartearekin batera. Gainera, HRELP-ek antolatutako *Language Landscape*<sup>6</sup> egitasmoan Beatriz Chivite<sup>7</sup> ikasle nafarrak hartu zuen parte.

Pasarte zirrara garri bat ere entzuteko aukera izan zen:

“Lagun euskaldun bat nuen lehen, nik kurduerarekiko nuen ikuspegia guztiz aldatu zidana. Guztiz zur eta lur utzi nuen kurdueraz hitz egiten ez nekiela esan nionean. Eta ikusi orain! Bera izan zen nire hizkuntza ikasteko izan nuen arrazoi nagusia, egia esan.” DHG

## Zer eskaini dio euskararen biziberritze prozesuak zure arloari?

Hiru aipu nabarmendu genitzake atal honetan:

“Erakutsi diguten gauza bat da hizkuntza batek jazarpenari aurre egin diezaiokeela, eta erresistentziaren parte ere izan daitekeela. Beraz, hizkuntzen biziberritzea ez da hizkuntzari buruz bakarrik, baita politika eta norbere burua maitatzea ere.” IrHGE

“Euskarak beste hizkuntza gutxitu batzuk maitatzen lagundu digu” IrH

“Euskararen arrakasta beste hizkuntza gutxitu batzuentzako esperantza eredu da”. IrH2

## Zer da prozesu honetan gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Era askotariko erantzunak jaso ziren, baina adibidez, murgiltze-ereduak familia erdaldunengan duen eragin ‘euskalduntzailea’<sup>8</sup>, hizkuntza paisaiak eta komunikabideek pizten duten kontzientzia, jendearen kezka eta grina biziberritze prozesu honek aurrera jarraitu dezan eta kulturaren

---

**“Erakutsi diguten gauza bat da hizkuntza batek jazarpenari aurre egin diezaiokeela, eta erresistentziaren parte ere izan daitekeela. Beraz, hizkuntzen biziberritzea ez da hizkuntzari buruz bakarrik, baita politika eta norbere burua maitatzea ere”.**

eta hizkuntzaren arteko lotura aipatu zituzten, besteak beste.

Kulturaren inguruan, batek esan zuen hizkuntzaren (euskararen) biziberritzea kulturaren biziberritzearekin guztiz lotuta doala, eta bertso-eskolak direla horren adibide.

Erantzun ezkorrei dagokienez, bi erantzun mota jaso ziren hemen, biak ere galdetegian zehar agertu direnak.

Alde batetik, irakasle batek normalizazioan indar gehiegi jartzen ari dela esan zuen, Fishman-en esanak ahaztuta. Hau da, eskoletan, komunikabideetan eta administrazioan hizkuntza erabiltzeko ardura gutxiago, eta belaunaldi arteko transmisioa eta erabilera indartzeko ardura gehiago egon beharko litzatekeela esan zuen.

Bestalde, politika izan zen beste gaia, hainbestetan azaldu den politizazioa. Hala ere, bi modu ezberdinetan azaldu zen kezka hau:

“Ez zait gustatzen biziberritze prozesuak daukan kutsu nazionalista. Uste dut txarra dela gatazka bat sortzen delako liberalen (ezkertiarrek) eta tradizioak mantentzearen aldekoen (normalean eskuindarrak) artean” IHG

“Ez zait gustatzen hainbat gobernuak eta gizabanakok euskararen kontra egitea eta bere biziberritzearen eta mantentzearen aurka egitea.” IX

### **Zer da zuk, ikerlari edota aditu bezala, euskararentzako gomendatuko zenukeena?**

Hemen ere era askotariko erantzunak jaso ziren, baina askok eta askok hitzunak, eta bereziki, umeak eta gazteak izan zituzten jomugan, hizkuntza erabiltzeko aukera eman behar baitzaie kosta ala kosta. Horretaz gain, erabileraren garrantzia azpimarratu zuten, dibertigarria egin behar baita hizkuntza. Horretarako, dena den, behe-behetik sortutako aktibismoa behar da, izan ere, Julia Sallabank-en esanetan, behetik gorako biziberritzea oso garrantzitsua da, aktibistak leialak izaten direlako, eta gobernuak, aldiz, ez. Berak Euskal Herrian hizkuntzaren etorkizunarekin ezkorra zen jende ‘normala’ ezagutu zuen, eta hori da aldatu beharrekoa, bere ustez.

Erabilerari dagokionez, Paul Sutherland-ek hizkuntza erabiltzeko toki ez eskusiboak sortzearen garrantzia azpimarratzen zuen, euskara euskal gizarte osoak erabili dezan; izan gazte, ume, heldu, abertzale, enpresari...

Beste batzuk euskaraz heztearen derrigortasuna aipatu zuten, hizkuntza denongana iritsi eta kontzientzia gehiago piztu dadin. Eskolek, izan ere, garrantzia handia dute, baita euskararen garrantzia eta berezitasuna transmititzeko ere.

Baina bazen ikerketa munduari gomendiorik egiten zionik, izan ere, Lutz Marten-ek proposatu zuen hiztun, ikasle eta ikerlarien arteko elkarrekintza sortu beharra dagoela, kalean lan egingo duen eta gobernuak finantzatuko duen ikerketa gune eraginkor baten gidaritzapean. Era berean, ikasle batek Euskal Herrian HRELP bezalako programa baten beharra adierazi zuen, ikasle gazteek ikertzeko aukera izan dezaten eta diru-laguntzen bitartez ikerketa esparruan sartzen hasi daitezten.

Ikerketari buruz ari garenez gero, irakasle batek ezagutza zientifikoa euskaraz ezagutarazteko gonbita egin zigun, ingeleraren hegemonia arazo larria baita.

## 5. ONDORIOAK

Ikerketa kualitatiboa izanik, emaitzak ezin dira orokortu, baina jasotako erantzunek euskarak jarraitu beharreko bidea pixka bat argitu dezakete. Dena den, argi utzi behar da SOAS-eko HRELP departamentuak bi berezitasun dituela; alde batetik, hizkuntza 'exotikoenganako' interesa, eta bestetik, dokumentatzeko (eta ez hainbeste, biziberritzeko) interesa. Gainera, kontutan hartu behar da gurea ez dela 'oso hizkuntza gutxitua', erlatiboki hiztun ugari baititu eta indar etnolinguistiko<sup>9</sup> handia baitu. Agian honexegatik guztiagatik ez du hainbesteko jakin-minik pizten.

Baina ondorio zehatzekin hasita, argi dago euskara hizkuntza isolatu bat dela eta horrek egiten gaituela famatu munduan zehar, baita gure hizkuntzaren ezaugarri bitxiak ere. Horretaz gain, tantaka iristen zaizkie euskararen inguruko albistek, euskaldunen batekin harreman esturik egon ezean. Atzerrian ikasteak edo lan egiteak badu bere eragina, bestela oroitu elkarrizketatu bat kurduera ikastera bultzatu zuen euskaldunaz. Bestalde, kongresuek, jardunaldiek eta beste hainbat egitasmoak gure esperientzia atzerrian partekatzeko aukera ematen digute, gaur egun ez baita euskal artikulua zientifikoa askorik irakurtzen, behintzat, artikulua honetan ikusi denari so eginez gero.

Honetaz gain, gu ezagutu ahal izateko beste hainbat faktore daude, tartean, antzeko herrialde batekoa (Quebec edo Kurdistan, adibidez) izatea, edota hizkuntzalaritzan alor jakin batekoa izatea, esaterako,

---

**Hiztunen, ikasleen eta ikerlarien arteko elkarrekintza sortu beharra dagoela, kalean lan egingo duen eta gobernuak finantzatuko duen ikerketa gune eraginkor baten gidaritzapean.**

**Neurri handiago  
edo txikiago  
batean,  
erreferenteak  
gara biziraupen  
prozesuan  
indartsu  
dihardugulako  
eta historia zail  
bati aurre egiten  
ari  
gatzazkiolako.  
Erreferenteak  
gara hizkuntza  
paisaia,  
hezkuntza,  
komunikabideak,  
kultura eta beste  
hainbat alorretan  
euskara txertatu  
ditugulako modu  
eraginkorreetan.  
Horretarako,  
jakina,  
berebiziko  
garrantzia izan  
du gure  
egitasmoak  
ebalatu eta  
hobetzeko izan  
dugun  
antolakuntzak  
eta joerak.**

hizkuntzen tipologia edota hizkuntzen biziberritzea.

Euskal Herriko egoera politikoak ere nahasmen handi samarra sortzen du, eta ez dago garbi ez zer den Euskal Herria, ezta egoera soziolinguistiko eta politikoa zein den ere. Hori bai, jaso den bezalaxe, argi dago euskara ahal den toki guztietara zabaldu behar dela, izan esparru, domeinu, giro, ideologia, etab.

Edonola ere, eta neurri handiago edo txikiago batean, erreferenteak gara biziraupen prozesuan indartsu dihardugulako eta historia zail bati aurre egiten ari gatzazkiolako. Erreferenteak gara, hain zuzen, hizkuntza paisaia, hezkuntza, komunikabideak, kultura eta beste hainbat alorretan euskara txertatu dugulako modu eraginkorreetan. Horretarako, jakina, berebiziko garrantzia izan du gure egitasmoak ebaluatu eta hobetzeko izan dugun antolakuntzak eta joerak. Erreferentzialtasun honen isla da masterreko eskoletan zehar euskarak izan duen presentzia, bigarren hiztun-komunitate aipatuena izan baita, *maorien* ostean.

Bestalde, erreferentzialtasuna ez galtzeko, kontutan hartzeko modukoa da Julia Sallabankek emandako aholkua: “egin indarra ‘jende xehea’ aktibatzen, goitik etorritako egitasmoek euskalgintza akabatu baino lehen”.

Halaber, aipatzekoa da Espainian bizi eta ikasitako bi ikasleek euskararen inguruan erakutsi duten ezagutza gabezia, biek halako biek bi ideia ‘ezagun’ mahai gaineratu baitzituzten, tartean, “euskarak oso hizkuntza zaila dirudi ikasteko” eta berriro ere, gatazka politiko-linguistikoa.

Bukatzeko, esan behar da erantzun hauek, egilearen ustetan, ez direla ez onak, ez txarrak, baizik eta, besterik gabe, horrelakoak dira. Izan ere, oso egoera jakin batean burututako ikerketa da hauxe, eta orain arte ez da harreman handirik izan HRELP eta euskararen artean. Horren aurrean, eta ahalik eta eragile, erakunde eta ikerlari gehienekin harremanetan jartzeak onura besterik ez digunez ekarriko, komeni da etxean fin-fin lanean jarraitzea, baina baita etxetik kanpo egiten eta esaten dena bertatik bertara bizitzea ere. ●

## OHARRAK

1. Atal hau osatzeko Irina Nikolaeva zuzendariak prestatutako txostena erabili da
2. Elkarrizketatu bakoitza ondo identifikatu ahal izateko, lehenik eta behin bere ardura jarriko da, ondoren bere departamentua, eta ondoren informazio osagarria.
3. <http://larkpie.net/siberianlanguages/>
4. Bederatzi aldiz aipatu da euskara urte osoan zehar, arrazoiak honako hauek izan dira: hizkuntza isolatua, gaizki idatzitako seinaleak, Humboldt eta euskara, murgiltze eredu,

euskara batua, Kulturaldi web orrialdea eta herrialde batean baino gehiago hitz egiten den Abstand hizkuntza izatea.

5. Marx (1986).

6. <http://languagelandscape.org/>

7. <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2386/beatriz-chivite-ezkiet>

8. Aurreko urteetako ikasle batek bere proiektuan oztopatu zuen hau, antza.

9. Giles, Bourhis and Taylor (1977) eta Fishman (1972).

## BIBLIOGRAFIA

Dorian, N. (1981). *Language Death: The Life Cycle of a Scottish Gaelic Dialect*, Massachussets, University of Pennsylvania Press.

Fishman, J.A. (1972). *The sociology of language. An interdisciplinary social science approach to language in society*. Rowley (Massachusetts): Newbury House Publishers / 1988. *Sociología del lenguaje*. Madril: Cátedra.

Giles, H., Bourhis, R.Y. eta Taylor, D.M. (1977). "Towards a theory of language in ethnic relations". In: Giles, H. (arg.) *Language, Ethnicity and Intergroup Relations*. London: Academic Press.

Godoy, E. (2009). 'Metodología cualitativa' (Linean), 2009ko Apirilaren 19a. Kontsulta: 2013-03-12. Helbidea. <http://www.slideshare.net/datasetakey/metodologia-cualitativa>

HRELPE (2015). Annual report 2014. Helbidea: [http://www.hrelpe.org/publications/reports/HRELPE\\_annual\\_report\\_2014.pdf](http://www.hrelpe.org/publications/reports/HRELPE_annual_report_2014.pdf)

Marx, K. (1986). "Outlines of the Critique of Political Economy" in *Collected Works of Karl Marx and Frederick Engels: 2. alea*, 80. orr, International Publishers: New York.

Quecedo, R. eta Castaño, C. (2002). "Introducción a la metodología cualitativa", *Revistapsicodidáctica (EHU)*, 014. alea, , 15 orr. Kontsulta: 2013ko Apirilaren 17a. <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=17501402>

SOAS (2015). "SOAS' Endangered Languages Documentation Programme receives a further \$11 million from arcadia" (sarean). Helbidea: <http://www.soas.ac.uk/news/newsitem102002.html>

Tribuaren berbak: Eredu ere bagarelako. Zuzendaria eta aurkezlea: Kike Amonarriz. EITB, 2015. Helbidea: <http://www.eitb.tv/eu/bideoa/tribuaren-berbak-2-denboraldia/3846431703001/4004700623001/eredu-ere-bagarelako>

University of Hawai'i (n.d.). "Department of Linguistics". Helbidea: <http://ling.hawaii.edu/>

Ur handitan: Nola ikusten gaituzte espainiarrak?. Zuzendaria eta aurkezlea: Jaime Otamendi. EITB, 2015. <http://www.eitb.tv/eu/bideoa/ur-handitan/4078820724001/4135625782001/nola-ikusten-gaituzte-espaniarrek/>